



## GOIZ EGUZKI

### Eguneko zentroari buruz, hitzaldia

Zaharren Egoitzan dagoen eguneko zentroari buruz hitzaldia emango dute gaur, 17:00etan, Goiz Eguzkin. Inma Lopetegi Gizarte Langileak emango du hitzaldia, eta Antton Aizkorreta gizarte langileak irudiekin girotuko du. Eguneko zentroan goizetik arratsalderako zerbitzua eskaintzen dute; 60 plaza ditu. Hitzaldian emango dituzte funtzionamenduaren xehetasun guztiak. ||

## BEHOBIA-DONOSTIA

### Autobusean joateko, izen ematea

Behobia-Donostia lasterketa ospetsua azaroaren 9an izango da aurten. Hernanitik autobusean joan nahi duenak gaur du izena emateko eguna. Atletismoko pistan egin dute hitzordua, 19:00etatik 20:00etara. ||

## SAN JOAN KONPARTSA

### Euskal Dantza ikastaroan, izen ematea

San Joan Konpartsak Euskal Dantza ikastaroa antolatu du. Izena eman nahi duten guztiak gaur dute azken aukera. Biterin egongo dira, 17:00etatik 20:00etara. Bestela: 695 753 138. ||

## AXKETA TALDEA

### Eskalada tailerra, gaurtik

Axketa taldeak eskalada tailerra antolatu du Gaztetxean. Izena eman dutenek gaur dute aurteneko eguna; 18:00etan. ||

## ITURRITXO

### Haur txokoan izena emateko azken eguna da gaur

Iturritxo Elkarteak haur txoko zerbitzua eskainiko du. Parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute, eta gaur da azken eguna. Latsunberri 32ko buzoira bota behar dituzte izen-abizenak, helbidea eta telefona. ||

## HERNANI WUKROREKIN X. JARDUNALDIAK

# Angel Olaran eta Wukroko 11 gaztetxo etorriko dira jardunaldietara

Hamargarren edizioa izango da aurtengoa, eta hilaren 24tik 29ra izango dira ekintzak. Gaztetxoak 10 eta 13 urte bitartekoak dira; 3 monitore ere, etorri dira beraiekin.

HAMAR urte beteko dira aurtun, Hernani Wukrorekin GKEk elkartasun jardunaldiak antolatzen dituela. Ekintza ugari antolatu dituzte, guztiak irailaren 24tik 29ra. Atzo egin zuten aurkezpena, eta azaldu zuten zutenez, aurtengo edizioa oso berezia izango da: «Angel Olaran dator, baina ez bakarrik. Wukroko 11 gaztetxo eta 3 monitore datoz berarekin». Atzo iritsi ziren Madrilerak, eta bertan Kirol munduko sari bat jasoko dute. Bartzelonatik pasatu eta asteazkenean iritsiko dira Hernanira. Estatuan barrera egingo duten ibilbidean, Wukrori laguntza ematen dioten herriak bisitatuko dituzte.



Atzo iritsi ziren Madrilerak Olaran eta Wukroko 14 kideak.

## Ekintzez betetako astea

Datorren asteazkenean, hilaren 24an iritsiko dira Hernanira guztiak, eta Udalak egingo die harrera 18:00ak inguruan. Hurrengo egunean, ostegunean, hitzaldia emango du Angel Olaranek Biterin; 19:00etan izango da. Hernani

Wukrorekin kirol eguna larunbatean izango da. Hainbat kirol proba egingo dituzte Antziolako pistetan, Wukro eta Hernaniko haur eta gazteen artean. Egun berean, arratsaldean, Ereñotzura gerturatuko dira, frontoi berriaren palan jokatzera. Hilaren 28an, igandean, meza emango du

Agustinetan Angel Olaranek. Eta eguerdian, elkartasun bazkaria egingo dute. Txartelak erosteko: Migel Lujanbio, Iru-retagoiena eta ostegunetako feria; 22 euroan egongo dira. Azkenik, hilaren 29an, Hernani Institutuan pasako dute eguna Wukroko haur eta gazteek. Helburua izango da he-

mengo ikastetxeak ezagutu, klaseak nolakoak diren ikusi, gazteak ezagutu... Wukroko eta bertako gazteek elkarrekin pasako dute eguna.

Hernani Wukrorekin GKEk eskerrak eman nahi dizkie laguntza emango duten guztiei: Udala, Ereñotzu, CD Hernani, Institutua, herritarrak... ||

## UDAL EUSKALTEGIA

# Azken egunak, euskaltegian izena emateko

Matrikula egin nahi dutenek hilaren 19ra arte izango dute aukera, hau da, ostiralera arte.

IKASTURTE berria euskeraz ikasiz hasi edo jarraitu nahi dutenek orain dute Udala Euskaltegian izena emateko garaia. Azken eguna ostirala da, eta handik aurrera, hutsik geratuko diren plazetan

bakarrik izango da aukera. Azaldu dutenez, komeni da euskaltegira lehenbailehen jotzea, orain baitago norberari ondoen datorkion ordutegian izena emateko aukera.

Udal Euskaltegian eskain-

tza zabala dute, bakoitzaren helburu eta premietara egokitua: ordutegia, sistema ezberdinak... Ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ere eskaintzen dute.

Nahi duenak gainera, Uda-

laren dirulaguntza eska dezake bertan. Laguntza %65ekoa izaten da edozein ikaslerentzat, «ordua 0,47 euroan». Langabetu, ikasle edo desgaituei %85eko laguntza ematen die Udalak, «ordua 0,20 euroan). ||

**HERNANI HIZKUNTZAK**  
**ENGLISH**  
(GURE INGHELESETXEA)

**IRAKASLE NATIBOAK**

Zorionak! 2013-14ko azterketa publikoen emaitzengatik:  
C1 ("Advanced"), B2 ("First") eta B1 ("PET").

**2014-15eko ikastaroaren matrikula irekita**  
12.00 - 13.30 eta 18.30 - 20.00  
[hernanihizkuntzak@gmail.com](mailto:hernanihizkuntzak@gmail.com)

Deitu Alan edo Joe **943 33 11 08** Kale Nagusia 41 - 1

**EXILIBITA**  
TABERNA

**GIN TONIC**  
**DASTAKETA**  
IRAILAK 19  
28:30-02:30

**FUNERARIA**  
**VASCONGADA**  
**EHORZKETAK**

**902 402 900**  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

Orkolaga, 57  
**943-55 79 01**  
**HERNANI**

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622  
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103  
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Chucla Kardaberaz 48 943 551793 • Gaez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

**EGURADIA** **GAUR** Ez da aldaketa askorik espero. Eguzkia eta lainoak tartekatuko dira, eta tenperatura bere horretan mantenduko da. Min.18° / Max.31°

**BIHAR** Goizean eguzkia izango da nagusi, eta iluntzean lainoak ugarituko dira. Tenperatura, are beroago. Min.18° / Max.33°

## UDALA

# Hernaniko hondakin sistema ezagutzen gaur, Briveko udaletik

Frantziako Brivela-Gaillarde hiriko zinegotzi eta teknikariak etorriko dira. Organikoa nola bildu eta kudeatzen den ezagutu nahi dute, gertutik.

HERNANIKO hondakin kudeaketa ezagutzera etorriko dira gaur Frantziako Brivela-Gaillarde hiriko zinegotzi eta teknikariak. Bernard Longpré alkateordearen hitzetan, interesatzen zaiena da bertatik ezagutzea hondakin organikoa nola bildu eta kudeatzen den Hernanin, bai atez ate bilduta eta baita auzokonpostean ere. Bisita arratsaldeko 15:00etan hasiko da, Gudarien Plazatik abiatuta. Hernaniz gain, Usurbil eta beste zenbait herri ere, bisitatuko dituzte.

Bisita gaur arratsaldean egingo dute; 15:00etan abiatuko dira Gudarien Plazatik.

**Datorren urtean organikoa atez ate biltzeko asmoa** Brive hiriak 50.000 biztanle ditu eta datorren urtean dute organikoa atez ate biltzeko asmoa. 10.000 biztanle inguru bizi diren auzoetan hasiko dira, momentuz.

Bernard Longpré alkateordearekin batera etorriko dira Briveko mankomunitateko bikide: Philippe Guyot ingeniaria eta Marie Cerlierier kudeatzailea. Makomunitateak 107.000 biztanleren hondakinak gestionatzen ditu. Frantziako hiri eta mankomunitate gehienetako hondakinak errauskailura eramaten dituzte orain: «Europako beste zenbait herrialderekin alderatuz gero, birziklatze tasa baxua dute. Hasi dira ordea, gaikako bilketa sistemak zabaltzen». ||



## ERROMERIA

### Gozatu ederra hartu zuten, denboraldiko aurreneko dantza saioarekin

Udako atsedenaldiaren ostean, erromeria izan zen larunbatean Hernanin. Jeiki Hadi taldea arduratu zen arratsaldea girotzeaz, eta hasiera batean gutxi batzuk animatu baziren ere, berehala bete zen Txantxangorri pareko plaza jendez. Hemendik aurrera hilero izango da erromeria, Hernanin. ||

## JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

## Eskoziar herriak jadanik irabazi du

Egun hauetan galdetu izan didate ea Eskozian zer gertatuko den. Nire erantzuna oso xumea da.

Eskozian gertatuko dena oso gauza ximple eta garrantzitsua da: eskoziar herritarrek zer izan nahi duten erabakiko dute. Eskoziarrene esku dago Britania Handian jarraitzea edo independentiaren izatea. Eta hortik aurrera, norberaren ideia eta sinpatia politikoen gainetik, txalotu eta onartu egingo da eskoziar herritarren erabakia.

Apasionantea eta miresgarria da guretzat Eskozia

bizitzen ari den prozesua. Alde batetik, hor dugu independentziaren inguruan eztabaida sutsu, sakona eta erabat demokratikoa. Hilarbete hauetan independentziaren aldeko eta aurkakoei bere argudioak azaldu eta defendatu dituzte, modu indartsu eta bizian, baina aldi berean naturaltasun eta errepetu osoarekin.

Britaniar gobernuaren jarriera ere azpimarratzeko modukoa iruditzen zait. Jakina, britaniar gobernuak independentziaren aurka kanpaina sutsua egin du, baina beti ere, edozein emaitza onartuz; eta ez du errepresioa edo armadaren

parte hartzea aipatu ere egin. Zer nahi duzue esatea? Espainiar gobernuaren menpe bizi garenontzat horrelako gauzak harrigarriak dira.

Beste aldetik Eskoziako prozesuak hainbat mitoen erorketa ekarri du: Europako mugak aldatu ezin direla, autodeterminazio eskubidea ez dela existitzen...eta antzekoak.

Ez da gutxi eskoziar herriak eman diguna. Ez da gutxi ere Katalunia erakusten ari zaiguna. Ez da makala Euskal Herrian zabaltzen ari den mugimendua. Garai interesgarriak datoz.

Mikel Arrieta Iraola

## GURE ESKU DAGO

### Festa eta brindisa bihar Kaxkoan barrena, erabakitze eskubidearen alde

«Herritarren garaia da, Eskozian ateratzen den emaitza baietza edo ezetza izan, demokraziaren garaipena da, herritarren garaipena da» lemapean, festa eta brindisa antolatu du Gure Esku Dagok bihar, Kaxkoan barrena. 19:00etatik 20:30etara, Eskozia, Katalunia eta Euskal Herriko musikak alaituko ditu kaleak, eta hainbat tabernetan pintxo potea izango da. Alaitasuna eta erabakitze eskubidearen aldarriak izango dira oinarria. Kamisetarekin gerturatzeko deia egin zaie herritarrei: «Gure Esku Dago, Eskozia, Katalunia edo antzeko kamiseta eta ikurrekin etortzera gonbidatu nahi ditugu». ||

## ARRAUN ELKARTEA

### Arraunlariak eta arraunean hasi nahi dutenek gaur dute hitzordua

Denboraldi berrian arraunean aritu nahi dutenek gaur dute hitzordua. Entrenamenduak gaur hasiko dira eta zita 16:00etan egin dute, Arraun Elkartearen egoitzan. ||

## III. BAKAILAO ASTEA

### Parte hartzeko izen ematea zabalik dute taberna, jatetxe eta dendek

Urriaren 13tik 19ra izango da Hernanin Bakailao astearen 3garren edizioa. Bakailoak protagonismoa aste osoan zehar izango du herriko denda, taberna eta jatetxeetan. Eskaparateak apainduko dituzte, pintxoak egongo dira, jatetxeetako menuetan bakailoa jateko aukera... Parte hartu nahi duten taberna, jatetxe edo dendek izena eman behar dute ostirala baino lehen. Horretarako: 943 33 70 28 edo [gurutze-a@hernani.net](mailto:gurutze-a@hernani.net). ||

## SARE

### Sakabanaketaren kontrako ekitaldira joateko autobusa, Hernanitik

SAREk sakabanaketarekin amaitzeko pausoa emango du larunbatean Bilbon. 18:00etan egin dute zita, Bilboko Miribillan. Hernanitik autobusak aterako dira, arratsaldeko 16:00etan, Atsegindegitik. Izena emateko zerrendak Garinen eta Oinddi tabernetan daude. ||

## WATERPOLOA

### Entrenamenduak astearte eta ostegunetan, eta baita probatzeko aukera ere

Denboraldi berria prestatzen hasi da dagoeneko Hernaniko waterpolo taldea. Irailean zehar, astearte eta ostegunetan izango dituzte entrenamenduak; Kiroldegian, 19:30etan. Bestalde, probatu nahi dutenek entrenamenduren batera azaldu besterik ez dute. ||

## ZUMITZA TTT

### Zumitza taldeko arropa probatu eta erosteko aukera, irailaren 24an

Zumitza tabernaren taldeko arropa probatu eta erosteko aukera izango da datorren irailaren 24an. Tabernan bertan izango da, 19:30etatik 20:30etara, eta nahi duena gerturatu daiteke. ||

## IRAGARKI MERKEAK

**Klase partikularrik eskaintzen dituzte:** matematika, kimika, fisika eta biologia. Unibertsitateko ikaslea naiz. Batxilergoko 1 mailatik behera, edozein mailatan. Deitu: 650 308 928

**Pisua salgai edo alokairuan.** Sala, bi logela, komuna eta sukalde. Sukalde ekipatua, 68 metro. Hernanin, Latsunbe auzoan. Deitu: 609 412 757

**Emakumea eskaintzen da,** etxeko lanak egin, umeak edo adinekoak zaindu... Deitu: 600 623 815

**Kamarera extra bat behar dugu barran eta sukaldean esperientziaduna.** Deitu: 669 160 727 Txakurkumeak salgai, Setter arrazakoak. Abuztuaren 31n jaiotako. Gurasoak ehiztariak. Prezioa: 50€. Deitu: 660267906; 660638587(Watsap).

**2 gela alokagai Hernaniko erdigunean.** Deitu: 659 363 944

**ETXEKO KONPONKETAK egiten dira;** iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)